

# FUNTSEZKO SOZIETATEA

Esan bezala gure enpresaren biltegia industrialde batean kokaturik dago. Horregatik bertan kokatzen diren beste enpresa batzuei erosiko dizkiegu material eta atalak gure jolas-parkea sortu eta eraikitzeko. Enpresa ezberdinak izango dira hauek, izan ere, jolasguneak atal ezberdinak edukitzeaz gain eta egitura konplexua du.

Biyurrienea jolas-parkea egiteko material eta atalak kantitate handi baino prezio hoberenetan erosiko ditugu eta inguruko enpresarekin hitzarmen bat egin ondoren lortuko dugu hau. Enpresa txiki bat izanik hau eta kantitate nabarmen bateko eroskita izaterakoan prezioaren jaitziera lortuko genuke, lehia murriztuz beste jolas-parke batzuek egiten dituzten enpresekin.

Behin materiala eta parkearen atalak biltegian ditugularik, ordenatu egingo ditugu tokatzen zaien sekzioaren arabera. Parkearen muntaketa tokian bertan egingo dugu. Lan hau dena gure langileen esku geldituko da.